



IKUSPEGIAK

Sormen-Industriei

buruzko estatistikaren datuen irakurketa analitikoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



IKUSPEGIAK

Sormen-Industriei

buruzko estatistikaren datuen irakurketa analitikoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2021

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001

Argitaraldia: 1. azaroa 2021

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzaile:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Koordinazio teknikoa:
ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL

Landa-lana:
SIADECO, S.COOP

Diseinua eta maketazioa:
Miren Unzurrunzaga Schmitz
ISBN: 978-84-457-3622-7

| | | |
|-----------|--|----|
| 1. | Sarrera metodologikoa | 5 |
| 1.1. | Fitxa teknikoa | 6 |
| 1.2. | Definizio kontzeptualak | 7 |
| 2. | Sormen-industriei buruzko zifrak | 8 |
| 2.1. | Sektore-dimentsioa | 8 |
| 2.2. | Lurraldea | 14 |
| 3. | Dimentsioa eta iraunkortasuna | 20 |
| 3.1. | Industria-dimentsioa | 20 |
| 3.2. | Iraunkortasuna | 23 |
| 4. | Sektoreen asimetriak eta profilak | 24 |
| 4.1. | Asimetriak | 24 |
| 4.2. | Agenteen profilak | 27 |
| 5. | Nazioartekotzea | 48 |
| 6. | Generoa | 49 |

1.

Sarrera metodologikoa

Txosten honek *2019ko Sormen-industrien Estatistikako* emaitzen ikuspegi globala eskaintzen du. Bi urtez behingo eragiketa da, eta Arteen eta *Kultura-industrien Estatistikarekin* partekatzen ditu helburuak eta metodologia. Bi tresna horiek elkartzeari esker, EAEko KSI multzoaren oinarritzko ezaugarriak ezagut daitezke.

2019ko edizio honetan, serieko bigarrena baita, modaren, diseinuaren, arkitekturaren, hizkuntzaren industriaren, publizitatearen eta bideo-jokoaren sektoreetako 354 agentek emandako datuak aztertzen dira. Landa-lana 2020an egin da, pandemian, baina aurkezten diren emaitzak Covid-19ak eragindako krisialdiaren aurrekoak dira. Eragiketa bi urtez behingoa denez (urte bakoitietan egiten da), azpimarratzekoa da tresna erabilgarria izango dela pandemiak sormen-sektoreetan izan duen eragina aztertzeko.

Lehenengo kapituluan, sektore horien zifra handiak aurkezten dira: EAEko sormen-industriak osatzen dituzten eragileen mapa, sortzen dituzten lanpostuak, eta non dauden. Ikuspegi panoramiko horren ostean, honako hauei buruzko azterketak egiten dira: industria-dimentsioa eta iraunkortasuna, barne-asimetriak eta sektore-profilak, nazioartekotzea, eta, azkenik, enpleguen banaketa genero-ikuspegiaren arabera.

1.1. Fitxa teknikoa

| |
|--|
| Eragiketaren izena |
| EAEko Sormen-industrien Estatistika |
| Eragiketaren estatusa |
| Eustatek ofizialduta |
| Aldizkakotasuna |
| Bi urtean behin |
| Eragiketa-mota |
| Zentsu-eragiketa |
| Informazioa biltzeko urtea |
| 2020 |
| Informazioaren erreferentzia-urtea |
| 2019 |
| Landa-lanaz arduratu den enpresa |
| Siadeco |
| Zentsua eta erantzun-maila |
| 354 agente (arkitekturako 63 agente, diseinuko 55, hizkuntzaren industrietako 61, modako 33, publizitateko 123, bideo-jokoetako 19). Erantzun-maila, guztira: % 74,6. <ul style="list-style-type: none">• Arkitekturako erantzun-maila: % 76,2.• Diseinuaren erantzun-maila: % 74,5.• Hizkuntzaren industrien erantzun-maila: % 85,2.• Modaren erantzun-maila: % 51,5.• Publizitatearen erantzun-maila: % 72,4.• Bideo-jokoaren erantzun-maila: % 89,5. |

1.2. Definizio kontzeptualak

Sormen-sektore guztien betebeharrak:

- Sormen-industriako enpresa pribatuak soilik jasotzen dira; autonomoak eta pertsona fisikoak, hasiera batean, ez dira estatistikan sartzen.
- Estatistikan sartu ahal izateko gutxienezko langile-kopurua: 3 langile (3 langiletik beherako agenteak ez dira sartu).
- Nodo gisa funtzionatzen duten elkarten enpresa bazkideak dira salbuespena; izan ere, sartu egin dira 3 langile baino gutxiago izan arren.

| | |
|-------------------------|--|
| Arkitektura | <ul style="list-style-type: none">▪ Eraikuntza-enpresak ez dira sartu. |
| Diseinua | <ul style="list-style-type: none">▪ Diseinuaren azpisektoreko sormen-industriatzat jotzen dira hirugarrenari diseinu-zerbitzua ematen dieten enpresa guztiak (diseinu-estudioak) eta enpresaren jardura nagusia diseinua izanik (ez fabrikazioa, ez merkaturatzea; horretarako diseinu-jarduerak ere behar dira enpresan, eta jardura hori lehiatzeko abantaila bat badute ere), beren diseinu propioak autoeditatzearekin lotutako fabrikazio- edo merkaturatze-jarduerak dituztenak. |
| Hizkuntzaren industriak | <ul style="list-style-type: none">▪ Itzulpen- eta interpretazio-enpresak, hizkuntzaren teknologien enpresak, hizkuntza-aholkularitzako eta hizkuntzen irakaskuntzaren arloko enpresak.▪ Enpresen zerrenda Langunek baliozkotu du oso-osorik; horrenbestez, 3 langile baino gutxiagoko enpresak ere jasotzen dira. |
| Moda | <ul style="list-style-type: none">▪ Diseinu propioa egiten duten enpresak soilik sartu dira.▪ Oso-osorik fabrikazioarekin lotutako jardura duten enpresak baztertu egin dira. |
| Publizitatea | <ul style="list-style-type: none">▪ Publizitate-komunikazioko estrategiak eta ekintzak sortzea, diseinatzea eta egitea. |
| Bideo-jokoak | <ul style="list-style-type: none">▪ Ez da sartu bideo-jokoaren salerosketa. |

2. Sormen-industriei buruzko zifrak

2.1. Sektore-dimentsioa

Sormen-industrien Estatistikaren bigarren edizio honetan, erroldan sartu ahal izateko eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten EAEko 354 agenterik buruzko informazioa da. Honako hauek osatzen dute estatistikako agenteen mapa:


- Arkitekturaren sektorea, 63 enpresek osatua.
- Diseinuaren sektorea, 55 agente biltzen dituena.
- Hizkuntzaren industriak, 61 agentek osatuta.
- Modaren sektorea, 33 enpresa.
- Publizitatearen sektorea 123 agentek osatzen dute, eta honako hauek ditugu barruan: sormen-agentziak, komunikabide-agentziak, marketin-zerbitzuko agentziak, eta komunikazio-aholkularitzak eta harreman publikoetako agentziak.
- Eta bideo-jokoen sektorea, 19 agente biltzen dituena.

Hurrengo irudian ikus daitekeenez, publizitatearen sektoreak ditu agente gehien (% 34,8), eta atzetik datoz arkitekturaren sektorea (% 17,8) eta hizkuntzaren industria (% 17,2), diseinuaren sektorea (% 15,5), modaren sektorea (% 9,3) eta, azkenik, bideo-jokoen sektorea (% 5,4).

2017arekin erkatuz gero, ikus daiteke agenteen % 15,5 gutxiagok hartu dutela parte estatistikan, eta horixe da sektore guztien dinamika: % 23-24 gutxiagok bideo-jokoen edo modaren sektorean eta % 10 gutxiagok arkitekturan. Azpimarratzekoa da agenteen murrizketa hori eragiketaren lehen edizioetako berezko kontuen ondorio dela batez ere, eta ez hainbeste sektoreen uzkurdua-dinamikaren ondoriozkoa. Hortaz, aipatu behar da edi-

zio honetako emaitzek aurreko edizioko emaitzek baino hobeto erakusten dutela zein den sormen-industrien errealitatea, betiere aintzat hartuta hasieran ezartzen diren betekizunak, eta azterlanean parte hartzeko baldintza nagusia gutxienez hiru enplegu izatea dela.


1. irudia. Agenteak, sektoreen arabera Absolutuak · 2017-2019



Termino absolutuetan, sormen-industrien diru-sarreraren eta gastuen balantzea positiboa da, 32 milioi eurokoa; hau da, sarreraren % 9,5. Aztertuz gero, ikusten da publizitatearen sektoreak hartzen duela guztizkoaren % 40,4. Diru-sarreraren bolumena dela-eta nabarmentzen den beste sektore bat hizkuntzaren industriak dira, sormen-industria guztien % 18,8 hartzen baitute. Gastuei erreparatuz gero, sektoreen araberrako banaketa diru-sarreraren banaketaren antzekoa da.


2. irudia. Agenteen guztizko gastuak, sektoreen arabera

Milioika eurotan · 2017-2019



3. irudia. Agenteen guztizko gastuak, sektoreen arabera

Milioika eurotan · 2017-2019



4. irudia. Diru-sarrerak, gastuak eta balantzea, sektorearen eta agentearen tipologiaren arabera 2017-2019


| Urtea | Sektorea | Diru-sarrerak | Gastuak | Balantzea | Ehunekoa, guztizko diru-sarrekiko |
|---------|-------------------------|----------------|----------------|----------------|-----------------------------------|
| | | Milaka eurotan | Milaka eurotan | Milaka eurotan | % |
| 2017 | Bideo-jokoak | 13.128,5 | 12.900,2 | 228,3 | %1,7 |
| | Publizitatea | 158.506,7 | 147.063,5 | 11.443,2 | %7,2 |
| | Moda | 59.220,2 | 42.589,9 | 16.630,3 | %28,1 |
| | Hizkuntzaren industriak | 64.262,7 | 57.576,9 | 6.685,8 | %10,4 |
| | Diseinua | 26.474,6 | 23.617,3 | 2.857,3 | %10,8 |
| | Arkitektura | 32.946,2 | 27.835,7 | 5.110,5 | %15,5 |
| Guztira | | 354.538,9 | 311.583,5 | 42.955,3 | %12,1 |
| 2019 | Bideo-jokoak | 12.411,5 | 12.000,5 | 411,0 | %3,3 |
| | Publizitatea | 138.961,8 | 131.468,2 | 7.493,6 | %5,4 |
| | Moda | 55.932,5 | 40.478,3 | 15.454,2 | %27,6 |
| | Hizkuntzaren industriak | 64.872,5 | 62.444,7 | 2.427,9 | %3,7 |
| | Diseinua | 37.178,6 | 35.036,2 | 2.142,4 | %5,8 |
| | Arkitektura | 34.963,0 | 30.324,6 | 4.638,4 | %13,3 |
| Guztira | | 344.320,0 | 311.752,5 | 32.567,4 | %9,5 |

EAEko sormen-industriek 3.678,6 langile dituzte. Enpleguaren % 64,7 publizitatearen sektorearen (% 35,2) eta hizkuntzaren industriaren (% 29,5) artean banatzen da. Termino absolutuetan enplegu gutxien sortzen duen sektorea bideo-jokoena da (% 7,5). Edonola ere, enpleguak enpresen arabera aztertzeak lagundu egiten du sektoreen enpleguaren di-

mentsioari buruzko ikuspegia osatzen: lehenengo mailan, hizkuntzaren eta bideo-jokoen industriak daude (enpresako 14-17 enplegu); bigarren mailan, publizitatea eta moda (enpresako 10 enplegu); eta hirugarren mailan, diseinua eta arkitektura (batez beste 5-6 langile enpresako).

5. irudia. Agenteen langileen guztizkoa, sektoreen arabera. Urteko lanaldi osoko langile baliokideak

Absolutuak · 2017-2019



6. irudia. Agenteen langileen guztizkoa, sektoreen eta agenteen tipologiaren arabera. Urteko lanaldi osoko langile baliokideak 2017-2019


| Urtea | Sektorea | Langileak | Ehunekoa, langileen guztizkoarekiko |
|---------|-------------------------|-----------|-------------------------------------|
| 2017 | Arkitektura | 360,8 | %9,3 |
| | Diseinua | 233,9 | %6,0 |
| | Hizkuntzaren industriak | 1.148,6 | %29,5 |
| | Moda | 370,1 | %9,5 |
| | Publizitatea | 1.504,6 | %38,6 |
| | Bideo-jokoak | 280,3 | %7,2 |
| Guztira | | 3.898,3 | %100,0 |
| 2019 | Arkitektura | 345,9 | %9,4 |
| | Diseinua | 334,8 | %9,1 |
| | Hizkuntzaren industriak | 1.086,0 | %29,5 |
| | Moda | 341,7 | %9,3 |
| | Publizitatea | 1.294,6 | %35,2 |
| | Bideo-jokoak | 275,6 | %7,5 |
| Guztira | | 3.678,6 | %100,0 |

2.2. Lurraldea

EAEko sormen-industrien lurralde-banaketak eratzten duen mapan, Bizkaiak agenteen % 54,5 biltzen ditu, Gipuzkoak % 33,1 eta Arabak % 12,4.

7. irudia. Agenteak, lurralde historikoaren arabera

Absolutuak · 2017-2019



Datuak xehetasun handiagoz aztertuz gero, sektore bakoitzaren lurralde-banaketa ikus daiteke. Azterketak erakusten du hizkuntzaren industriak modu bertsuan banatzen direla Bizkaiari eta Gipuzkoari, nahiz eta sektore gehienak Bizkaiari nabarmentzen diren.

8. irudia. Agentek, lurralde historikoaren arabera


Ehunekoa · 2017-2019

| Urtea | Sektorea | Araba | Gipuzkoa | Bizkaia |
|---------|-------------------------|-------|----------|---------|
| 2017 | Arkitektura | 17,1 | 24,3 | 58,6 |
| | Diseinua | 9,5 | 28,6 | 61,9 |
| | Hizkuntzaren industriak | 14,3 | 41,4 | 44,3 |
| | Moda | 2,3 | 27,9 | 69,8 |
| | Publizitatea | 13,5 | 33,8 | 52,7 |
| | Bideo-jokoak | 8,0 | 20,0 | 72,0 |
| Guztira | | 12,2 | 31,3 | 56,6 |
| 2019 | Arkitektura | 19,0 | 23,8 | 57,1 |
| | Diseinua | 9,1 | 32,7 | 58,2 |
| | Hizkuntzaren industriak | 11,5 | 47,5 | 41,0 |
| | Moda | 3,0 | 27,3 | 69,7 |
| | Publizitatea | 14,6 | 34,1 | 51,2 |
| | Bideo-jokoak | 5,3 | 21,1 | 73,7 |
| Guztira | | 12,4 | 33,1 | 54,5 |

Diru-sarrerei dagokienez, % 50etik gora Bizkaian biltzen da, % 34,9 Gipuzkoan eta % 8,2 Araban. Enpleguari dagokionez, % 57,2 Bizkaian biltzen da, % 33,2 Gipuzkoan eta % 9,6 Araban.

9. irudia. Agenteen diru-sarrerak, lurralde historikoaren arabera

Milioika eurotan · 2017-2019




10. irudia. Diru-sarrerak, lurralde historikoaren arabera

Absolutuak (mila eurotan) · 2017-2019

| Urtea | Sektorea | Araba | | Gipuzkoa | | Bizkaia | | Guztira | |
|---------|-------------------------|----------|------|-----------|------|-----------|------|-----------|-------|
| | | Maizt. | % | Maizt. | % | Maizt. | % | Maizt. | % |
| 2017 | Arkitektura | 2.477,1 | 7,5 | 8.173,6 | 24,8 | 22.295,4 | 67,7 | 32.946,2 | 100,0 |
| | Diseinua | 3.028,4 | 11,4 | 6.850,9 | 25,9 | 16.595,4 | 62,7 | 26.474,6 | 100,0 |
| | Hizkuntzaren industriak | 5.713,8 | 8,9 | 26.263,8 | 40,9 | 32.285,0 | 50,2 | 64.262,7 | 100,0 |
| | Moda | 4.053,7 | 6,8 | 32.444,0 | 54,8 | 22.722,5 | 38,4 | 59.220,2 | 100,0 |
| | Publizitatea | 18.598,1 | 11,7 | 36.328,1 | 22,9 | 103.580,4 | 65,3 | 158.506,7 | 100,0 |
| | Bideo-jokoak | 376,4 | 2,9 | 2.605,3 | 19,8 | 10.146,9 | 77,3 | 13.128,5 | 100,0 |
| Guztira | | 34.247,6 | 9,7 | 112.665,6 | 31,8 | 207.625,7 | 58,6 | 354.538,9 | 100,0 |
| 2019 | Arkitektura | 2.949,6 | 8,4 | 6.107,5 | 17,5 | 25.906,0 | 74,1 | 34.963,0 | 100,0 |
| | Diseinua | 1.489,9 | 4,0 | 19.004,8 | 51,1 | 16.683,9 | 44,9 | 37.178,6 | 100,0 |
| | Hizkuntzaren industriak | 5.621,6 | 8,7 | 26.583,9 | 41,0 | 32.667,0 | 50,4 | 64.872,5 | 100,0 |
| | Moda | 3.468,6 | 6,2 | 27.079,4 | 48,4 | 25.384,6 | 45,4 | 55.932,5 | 100,0 |
| | Publizitatea | 14.766,4 | 10,6 | 38.844,3 | 28,0 | 85.351,0 | 61,4 | 138.961,8 | 100,0 |
| | Bideo-jokoak | 139,9 | 1,1 | 2.628,0 | 21,2 | 9.643,6 | 77,7 | 12.411,5 | 100,0 |
| Guztira | | 28.436,0 | 8,3 | 120.247,9 | 34,9 | 195.636,1 | 56,8 | 344.320,0 | 100,0 |

Langile gehien dituzten sektoreak publizitatearena (guztizkoarekiko % 35,2, hau da, 1.294,6 langile termino absolutuetan) eta hizkuntzaren industriena (guztizkoarekiko % 29,5, hau da, 1.086,0 termino absolutuetan) dira. Biek hartzen dituzte Bizkaiko langile-kopuruaren erdia baino gehiago (% 38,8 eta % 26,8, hurrenez hurren).

11. irudia. Langileak (urteko lanaldi osoko langile baliokideak), lurralde historikoaren arabera Absolutuak · 2017-2019



12. irudia. Enplegua, lurralde historikoaren arabera

Ehunekoak · 2017-2019

| Urtea | Sektorea | Araba | | Gipuzkoa | | Bizkaia | | Guztira | |
|---------|-------------------------|--------|------|----------|------|---------|------|---------|-------|
| | | Maizt. | % | Maizt. | % | Maizt. | % | Maizt. | % |
| 2017 | Arkitektura | 57,2 | 15,9 | 74,5 | 20,7 | 229,1 | 63,5 | 360,8 | 100,0 |
| | Diseinua | 19,2 | 8,2 | 75,9 | 32,5 | 138,8 | 59,3 | 233,9 | 100,0 |
| | Hizkuntzaren industriak | 106,0 | 9,2 | 466,9 | 40,6 | 575,7 | 50,1 | 1.148,6 | 100,0 |
| | Moda | 17,0 | 4,6 | 178,1 | 48,1 | 175,0 | 47,3 | 370,1 | 100,0 |
| | Publizitatea | 138,2 | 9,2 | 365,6 | 24,3 | 1.000,8 | 66,5 | 1.504,6 | 100,0 |
| | Bideo-jokoak | 11,0 | 3,9 | 76,6 | 27,3 | 192,7 | 68,7 | 280,3 | 100,0 |
| Guztira | | 348,6 | 8,9 | 1.237,7 | 31,7 | 2.312,0 | 59,3 | 3.898,3 | 100,0 |
| 2019 | Arkitektura | 56,0 | 16,2 | 85,0 | 24,6 | 204,9 | 59,2 | 345,9 | 100,0 |
| | Diseinua | 18,3 | 5,5 | 189,0 | 56,5 | 127,5 | 38,1 | 334,8 | 100,0 |
| | Hizkuntzaren industriak | 99,0 | 9,1 | 424,1 | 39,1 | 562,8 | 51,8 | 1.086,0 | 100,0 |
| | Moda | 20,2 | 5,9 | 131,0 | 38,3 | 190,6 | 55,8 | 341,7 | 100,0 |
| | Publizitatea | 157,6 | 12,2 | 321,2 | 24,8 | 815,8 | 63,0 | 1.294,6 | 100,0 |
| | Bideo-jokoak | 3,0 | 1,1 | 71,6 | 26,0 | 201,0 | 72,9 | 275,6 | 100,0 |
| Guztira | | 354,1 | 9,6 | 1.222,0 | 33,2 | 2.102,6 | 57,2 | 3.678,6 | 100,0 |

3.

Dimentsioa eta iraunkortasuna

Jarraian ageri diren zifrek aukera ematen dute sormen-industriak beste ikuspuntu batzuetatik aztertzeko: lehenik eta behin, sektorearen industria-dimentsioa, negozio-bolumenaren eta sortzen den enpleguaren arabera; eta, bigarrenik, haren iraunkortasun ekonomikoa, etekinak aztertuta.

3.1. Industria-dimentsioa

Jarraian, sektoreen dimentsioa erakusten da, negozioaren ikuspegiaren arabera; aintzat hartuta zer fakturazio-bolumen duten sektore ekonomiko bakoitzaren industria-ehuna osatzen duten agenteek. Halaber, enplegu-bolumena neurtzen da, eta, horretarako, urteko lanaldi osoko langile baliokideak kalkulatzeko dira, baita agenteek langileen arloan egiten duten gastua ere.

Ateratzen diren datuak aztertuta, modaren, publizitatearen eta hizkuntzaren industriaren sektoreak nabarmentzen dira, lortutako diru-sarreraren batezbestekoa aintzat hartuta: modak, batez beste, 1,7 milioi; publizitateak 1,1, milioi; eta hizkuntzaren industriak milioi bat. Sormen-industriaren guztizkoaren batezbestekoa ez da milioi eurora iristen.

13. irudia. Industria-dimentsioa 2017-2019

| Urtea | Tipologia | Agente-kop. | Diru-sarrerak | |
|---------|-------------------------|-------------|----------------------|-----------------------------|
| | | | Maizt. (milaka €) | Batezbestekoa (milaka €) |
| 2017 | Arkitektura | 70,0 | 32.946,2 € | 470,7 € |
| | Diseinua | 63,0 | 26.474,6 € | 420,2 € |
| | Hizkuntzaren industriak | 70,0 | 64.262,7 € | 918,0 € |
| | Moda | 43,0 | 59.220,2 € | 1.377,2 € |
| | Publizitatea | 148,0 | 158.506,7 € | 1.071,0 € |
| | Bideo-jokoak | 25,0 | 13.128,5 € | 525,1 € |
| Guztira | | 419,0 | 354.538,9 € | 846,2 € |
| 2019 | Arkitektura | 63,0 | 34.963,0 € | 555,0 € |
| | Diseinua | 55,0 | 37.178,6 € | 676,0 € |
| | Hizkuntzaren industriak | 61,0 | 64.872,5 € | 1.063,5 € |
| | Moda | 33,0 | 55.932,5 € | 1.694,9 € |
| | Publizitatea | 123,0 | 138.961,8 € | 1.129,8 € |
| | Bideo-jokoak | 19,0 | 12.411,5 € | 653,2 € |
| Guztira | | 354,0 | 344.319,9 € | 972,7 € |

Enpleguari dagokionez, sektore berberak nabarmentzen diren arren, aldeak ez dira hain muturrekoak. Sektore bakoitzaren enplegua neurtzean (urteko lanaldi osoko langile balio-kideen guztizko kopuruaren eta langileen arloan egiten den gastuaren bidez), ikusten da modaren, bideo-jokoaren eta arkitekturaren sektoreak daudela urrutien sormen-industrien guztizkoaren batezbestekotik.

14. irudia. Enpleguaren kostua 2017-2019

| Urtea | Tipologia | Langile-kop. | Langile-gastuak | |
|----------------|-------------------------|----------------|----------------------|-----------------------------|
| | | | Maizt. (milaka €) | Gastu/langile (milaka €) |
| 2017 | Arkitektura | 360,8 | 10.243,6 € | 28,4 € |
| | Diseinua | 233,9 | 6.940,2 € | 29,7 € |
| | Hizkuntzaren industriak | 1.148,6 | 36.093,8 € | 31,4 € |
| | Moda | 370,1 | 12.504,5 € | 33,8 € |
| | Publizitatea | 1.504,6 | 63.444,6 € | 42,2 € |
| | Bideo-jokoak | 253,1 | 7.578,7 € | 29,9 € |
| Guztira | | 3.871,1 | 136.805,4 € | 35,3 € |
| 2019 | Arkitektura | 345,9 | 11.044,8 € | 31,9 € |
| | Diseinua | 334,8 | 11.934,4 € | 35,6 € |
| | Hizkuntzaren industriak | 1.086,0 | 39.727,0 € | 36,6 € |
| | Moda | 341,7 | 9.725,9 € | 28,5 € |
| | Publizitatea | 1.294,6 | 51.712,5 € | 39,9 € |
| | Bideo-jokoak | 267,6 | 8.016,3 € | 30,0 € |
| Guztira | | 3.670,6 | 132.160,8 € | 36,0 € |

3.2. Iraunkortasuna

Sormen-industrien iraukortasuna agenteek eskuratzen dituzten emaitza ekonomikoetatik lortzen da. Sektoreen balantze ekonomikoak sektore bakoitzaren diru-sarreraren guztikoarekiko onuren portzentajea kalkulatzeko aukera ematen du. Ildo horri jarraikiz, modaren eta arkitekturaren sektoreek lortzen dute errentagarritasun handiena, % 27,6 eta % 13,3, hurrenez hurren.

15. irudia. Enpresaren iraukortasuna 2017-2019

| Urtea | Tipologia | Onurak | Diru-sarrerak | |
|----------------|-------------------------|-----------------|--------------------|---------------------------|
| | | | Maizt. (milaka €) | Onuren % diru-sarrerekiko |
| 2017 | Arkitektura | 5.110,5 | 32.946,2 € | %15,5 |
| | Diseinua | 2.857,3 | 26.474,6 € | %10,8 |
| | Hizkuntzaren industriak | 6.685,8 | 64.262,7 € | %10,4 |
| | Moda | 16.630,3 | 59.220,2 € | %28,1 |
| | Publizitatea | 11.443,2 | 158.506,7 € | %7,2 |
| | Bideo-jokoak | 228,3 | 13.128,5 € | %1,7 |
| Guztira | | 42.955,3 | 354.538,9 € | %12,1 |
| 2019 | Arkitektura | 4.638,4 | 34.963,0 € | %13,3 |
| | Diseinua | 2.142,4 | 37.178,6 € | %5,8 |
| | Hizkuntzaren industriak | 2.427,9 | 64.872,5 € | %3,7 |
| | Moda | 15.454,2 | 55.932,5 € | %27,6 |
| | Publizitatea | 7.493,6 | 138.961,8 € | %5,4 |
| | Bideo-jokoak | 411,0 | 12.411,5 € | %3,3 |
| Guztira | | 32.567,4 | 344.320,0 € | %9,5 |

4.

Sektoreen asimetriak eta profilak

4.1. Asimetriak

Sektoreen datu globaletatik harago, kapitulu honetan zenbait ñabardura azpimarratu nahi dira, sektoreen errealitateari buruzko ikuspegi doituagoa eman ahal izateko. Ildo horretan, Sormen-industrien Estatistikan 80-20 araua nahita aplikatzeari eutsi zaio, aztertutako eremuetan dauden asimetriak azaleratzen baitira.


Ondorioz, atal honetan aztertuko da diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20k zer eragin duen sektore bakoitzaren osotasunean. Hala, ikuspegi bikoitza lortzen da: diru-sarrera handienak dituzten agenteen erretratua eta, aldi berean, sektore bakoitzeko agente gehienei dagokien negozio- eta enplegu-bolumena sumatzea.

Sektore batzuen eta besteen asimetriei eta kontzentrazio-mailei orokorrean begiratu gero, ikus daitekeenez, ia sektore guztietan diru-sarrerarik handienak dauzkaten agenteen % 20k sektore bakoitzeko diru-sarrera guztien 10 eurotik 7 eta 8 euro bitartean metatzen dituzte (arkitekturak eta bideo-jokoek izan ezik; hurrenez hurren % 61,9 eta % 66,3 metatzen baitituzte).


Enpleguari dagokionez, sektoreen arteko aldeak nabariagoak dira: hiru sektoretan, diru-sarreraren bolumen handiena duten agenteen % 20k 10 langiletik 6 eta 8 langile bitartean dituzte (hizkuntzaren industriek % 81,9; publizitateak % 63,1; eta diseinuak % 61,1). Bideo-jokoaren eta arkitekturaren sektoreek 10 langiletik 3 eta 4 langile bitartean dituzte (% 41,9 eta % 37,1 hurrenez hurren). Eta, azkenik, modaren sektoreak du asimetria txikiena; izan ere, diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20k langileen % 58,9 dituzte. Kasu honetan, diru-sarrera handiagoak izateak ez du esan nahi enplegu gehiago sortzen direnik.

Ildo horretan, sektore guztietan asimetria nabarmenak ikusten dira diru-sarreraren bolumen handiena duten agenteen eta gainerakoen artean, batik bat jarduera ekonomikoaren banaketan.

16. irudia. Agenteen tipologiaren rankinga, diru-sarrera gehien dituzten agenteen % 20ren diru-sarreraren kontzentrazioaren arabera Ehunekoa · 2017-2019



17. irudia. Agenteen tipologiaren rankinga, diru-sarrera gehien dituzten agenteen % 20ren enpleguaren kontzentrazioaren arabera Ehunekoa · 2017-2019



4.2. Agenteen profilak

Txosten honetako kapituluek aukera ematen dute sormen-industrien zenbait azterketamaila egiteko. Atal honen helburua agenteen profilak azaltzea da, diru-sarreraren mailaren arabera banatuta. Sormen-sektore bakoitzaren azterketak hiru atal ditu: lehena, lurralde-banaketari buruzkoa; bigarrena, aipatutako segmentazio ekonomikoaren arabera ikuspegia barne hartzen duena; eta, hirugarrena, enpresen tamaina aintzat hartuta, sektoreak langileen arabera aztertzen dituen.


4.2.1. Arkitektura

Arkitekturaren sektorea 63 enpresek osatzen dute. Sektorearen lurralde-banaketari erreparatuz gero, ikus daiteke Bizkaiak duela enpresa-kontzentrazio handiena (% 57,1). Hala ere, *sektoreko agenteak 100.000 biztanleko* ratioa aztertzen bada, nahiz eta Bizkaia EAEko batezbestekoaren gainetik egon (4,3), Araba nabarmentzen da, ratio handiagoa baitu (6,2). Gipuzkoak, ordea, batezbestekoaren azpiko ratioa du (2,8).


Arkitektura-enpresen jarduera bat dator lurralde-banaketarekin; Bizkaiak biltzen du proiektu-bolumen handiena (% 55,0). Lurralde bakoitzean agente bakoitzeko proiektuen batezbestekoa aztertzen bada, agenteen ratioa ez bezala, Gipuzkoa batezbestekoaren gainetik dago, eta, kasu honetan, Arabak du ratio txikiena.

18. irudia. Arkitektura-entresak, lurralde historikoaren arabera

2017-2019



19. irudia. Arkitektura-entresen jarduera, lurralde historikoaren arabera 2017-2019



Datuak enpresen profil ekonomikoaren arabera aztertzen badira, 100.000 eta 500.000 euro bitarteko diru-sarrerak dituztenak nabarmentzen dira, hau da, sektoreko agenteen % 65,1. Enplegu-bolumena nahiko orekatua da agenteen banaketarekiko. Aldeak diru-sarreraren bolumenean ageri dira: 500.000 euro baino gehiagoko diru-sarrerak dituzten enpresek (% 27,0) sektorearen diru-sarrera guztien % 68,6 sortzen dute.

20. irudia. Arkitektura-enpresak, diru-sarreraren arabera 2017-2019

| Urtea | | Agenteak | | Diru-sarrerak | Urteko lanaldi osoko langile baliokideak | |
|---------|---------------------------|----------|-------|---------------|--|-----------------|
| | | Maizt. | % | % | % | Batez-beste-koa |
| 2017 | 1.000.000 € baino gehiago | 5,0 | 7,1 | 31,3 | 16,1 | 11,6 |
| | 500.001-1.000.000 € | 14,0 | 20,0 | 33,9 | 16,8 | 4,3 |
| | 100.000-500.000 € | 42,0 | 60,0 | 33,3 | 59,4 | 5,1 |
| | 100.000 eurotik behera | 9,0 | 12,9 | 1,5 | 7,7 | 3,1 |
| Guztira | | 70,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 5,2 |
| 2019 | 1.000.000 € baino gehiago | 7,0 | 11,1 | 50,1 | 24,2 | 12,0 |
| | 500.001-1.000.000 € | 10,0 | 15,9 | 18,5 | 19,7 | 6,8 |
| | 100.000-500.000 € | 41,0 | 65,1 | 30,3 | 52,8 | 4,5 |
| | 100.000 eurotik behera | 5,0 | 7,9 | 1,0 | 3,3 | 2,3 |
| Guztira | | 63,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 5,5 |

Azkenik, azpimarratu behar da aztertu diren arkitektura-enpresak batik bat mikroenpresak direla, plantillan 10 langile baino gutxiago dituzten agenteak (sektorearen % 87,0).

21. irudia. Arkitektura-enpresak, urteko lanaldi osoko langile baliokideen arabera 2017-2019


| Urtea | | Maizt. | % |
|---------|---|--------|-------|
| 2017 | Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago | 63,0 | 90,0 |
| | Enpresa txikia: 10-49 enplegu | 7,0 | 10,0 |
| | Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago | - | - |
| Guztira | | 70,0 | 100,0 |
| 2019 | Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago | 55,0 | 87,0 |
| | Enpresa txikia: 10-49 enplegu | 8,0 | 13,0 |
| | Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago | - | - |
| Guztira | | 63,0 | 100,0 |

4.2.2. Diseinua


Diseinuaren sektorearen lurralde-banaketari erreparaturaz gero, 55 agentek osatzen baitute, ikusten da batik bat Bizkaian daudela (% 58,2) eta 100.000 biztanleko ratioak (3,8) EAEren batezbestekoa (3,5) gainditzen duela.

Jarduerari begira, aldaketa garrantzitsu bat dago aurreko azterketarekiko. Gipuzkoan proiektuen % 87,0 egiten dira, Bizkaian % 11,2 eta Araban % 1,8.

22. irudia. Diseinu-entresak, lurralde historikoaren arabera 2017-2019



23. irudia. Diseinu-enpresen jarduera, lurralde historikoaren arabera 2017-2019



Diseinuaren sektorea diru-sarreraren arabera banatzeak agerian uzten du milioi bat euro baino gehiagoko diru-sarrerak dituzten enpresek sektorearen % 12,7 osatzen dutela eta diru-sarrera guztien % 70,0 baino gehiago metatzen dutela. Enpleguari dagokionez, diseinuaren arloko langileen % 49,0 biltzen dituzte. Halaber, aipagarria da agenteek % 76,3 500.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten enpresak direla eta diseinuaren sektorearen % 36,1 langileri ematen dietela lana.

24. irudia. Diseinu-entresak, diru-sarreraren arabera 2017-2019

| Urtea | | Agenteak | | Diru-sarrerak | Urteko lanaldi osoko langile baliokideak | |
|---------|---------------------------|----------|-------|---------------|--|---------------|
| | | Maizt. | % | % | % | Batezbestekoa |
| 2017 | 1.000.000 € baino gehiago | 10,0 | 15,9 | 65,8 | 33,1 | 7,8 |
| | 500.001-1.000.000 € | 4,0 | 6,3 | 9,5 | 10,5 | 6,1 |
| | 100.000-500.000 € | 24,0 | 38,1 | 20,3 | 41,2 | 4,0 |
| | 100.000 eurotik behera | 25,0 | 39,7 | 4,4 | 15,2 | 1,4 |
| Guztira | | 63,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 3,7 |
| 2019 | 1.000.000 € baino gehiago | 7,0 | 12,7 | 71,7 | 49,0 | 23,4 |
| | 500.001-1.000.000 € | 6,0 | 10,9 | 12,2 | 15,0 | 8,4 |
| | 100.000-500.000 € | 24,0 | 43,6 | 13,6 | 26,6 | 3,7 |
| | 100.000 eurotik behera | 18,0 | 32,7 | 2,5 | 9,5 | 1,8 |
| Guztira | | 55,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 6,1 |

Tamainari begiratzan badiogu, ikusten da mikroenpresak (% 90,9) direla nagusi sektorean.


25. irudia. Diseinu-enpresak, urteko lanaldi osoko langile balioki- deen arabera 2017-2019

| Urtea | | Maizt. | % |
|---------|---|--------|-------|
| 2017 | Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago | 59,0 | 93,7 |
| | Enpresa txikia: 10-49 enplegu | 4,0 | 6,3 |
| | Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago | - | - |
| Guztira | | 63,0 | 100,0 |
| 2019 | Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago | 50,0 | 90,9 |
| | Enpresa txikia: 10-49 enplegu | 4,0 | 7,3 |
| | Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago | 1,0 | 1,8 |
| Guztira | | 55,0 | 100,0 |

4.2.3. Hizkuntzaren industriak

61 agentek osatzen dituzte hizkuntzaren industriak, eta, batik bat, Gipuzkoan (% 47,5) eta Bizkaian (% 40,9) daude. Nolanahi ere, 100.000 biztanleko enpresa-ratioa askoz handiagoa da Gipuzkoan (5,4 enpresa 100.000 biztanleko), hau da, EAEko batezbestekoaren (3,9) gaineratik dago.

26. irudia. Hizkuntzaren industriak lurralde historikoaren arabera 2017-2019



Hizkuntzaren industrien profil ekonomikoari erreparatuz gero, ikus daiteke sektoreko agenteen % 67,2k 500.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztela, diru-sarrera guztien % 11,8. Hori bat dator agenteak enpresen tamainaren arabera aztertuz gero lortzen diren datuekin: mikroenpresak nagusi dira, alegia, 10 langile baino gutxiago dituztenak (% 75,4). Baina azpimarratu behar da milioi bat euro baino gehiagoko diru-sarrerak dituzten enpresek biltzen dituztela sektoreko diru-sarreraren % 81,7 eta, aldi berean, enpleguaren bolumenaren % 85,3.

27. irudia. Hizkuntzaren industriak, diru-sarreraren arabera 2017-2019

| Urtea | | Agenteak | | Diru-sarrerak | Urteko lanaldi osoko langile baliokideak | |
|---------|---------------------------|----------|-------|---------------|--|---------------|
| | | Maizt. | % | % | % | Batezbestekoa |
| 2017 | 1.000.000 € baino gehiago | 13,0 | 18,6 | 80,8 | 80,1 | 70,7 |
| | 500.001-1.000.000 € | 7,0 | 10,0 | 7,6 | 8,6 | 14,1 |
| | 100.000-500.000 € | 24,0 | 34,3 | 9,5 | 7,5 | 3,6 |
| | 100.000 eurotik behera | 26,0 | 37,1 | 2,1 | 3,9 | 1,7 |
| Guztira | | 70,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 16,4 |
| 2019 | 1.000.000 € baino gehiago | 14,0 | 23,0 | 81,7 | 85,3 | 66,1 |
| | 500.001-1.000.000 € | 6,0 | 9,8 | 6,5 | 4,4 | 8,0 |
| | 100.000-500.000 € | 26,0 | 42,6 | 10,5 | 8,1 | 3,4 |
| | 100.000 eurotik behera | 15,0 | 24,6 | 1,3 | 2,2 | 1,6 |
| Guztira | | 61,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 17,8 |


28. irudia. Hizkuntzaren industriak, urteko lanaldi osoko langile baliokideen arabera 2017-2019

| Urtea | | Maizt. | % |
|---------|---|--------|-------|
| 2017 | Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago | 53,0 | 75,7 |
| | Enpresa txikia: 10-49 enplegu | 12,0 | 17,1 |
| | Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago | 5,0 | 7,1 |
| Guztira | | 70,0 | 100,0 |
| 2019 | Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago | 46,0 | 75,4 |
| | Enpresa txikia: 10-49 enplegu | 10,0 | 16,4 |
| | Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago | 5,0 | 8,2 |
| Guztira | | 61,0 | 100,0 |

4.2.4. Moda

33 agentek osatzen dute modaren sektorea, eta, batik bat, Bizkaian daude (% 69,7). Gipuzkoak agente gutxiago dituen arren, 100.000 biztanleko enpresa-ratioa EAEko batezbestekoa baino hamarren gutxi batzuk txikiagoa da (1,7 enpresa 100.000 biztanleko Gipuzkoan eta 2,1 EAEn).

29. irudia. Moda-enpresak, lurralde historikoaren arabera 2017-2019



Profil ekonomikoari dagokionez, 100.000 eta 1.000.000 euro bitarteko diru-sarrerak dituzten enpresak nabarmentzen dira, sektorearen erdia baino gehiago osatzen baitute. Nahiz eta diru-sarrera guztien % 8,2 baino ez jaso, langile guztien % 19,4 hartzen dituzte. Ia diru-sarrera guztiak (% 91,3) eta enpleguaren erdia baino gehiago (% 78,0) 10 enpresatan biltzen dira; enpresa horiek 1 milioi euro baino gehiagoko diru-sarrerak dituzte, eta sektorearen % 30,3 osatzen dute.

Eta, azkenik, azterketa enpresen tamaina aintzat hartuta egiten bada, sortzen duten enpleguaren arabera, mikroenpresak nabarmentzen dira, hau da, agenteen % 66,7.

30. irudia. Moda-enpresak, diru-sarreraren arabera 2017-2019

| Urtea | | Agenteak | | Diru-sarrerak | Urteko lanaldi osoko langile baliokideak | |
|---------|---------------------------|----------|-------|---------------|--|---------------|
| | | Maizt. | % | % | % | Batezbestekoa |
| 2017 | 1.000.000 € baino gehiago | 9,0 | 20,9 | 91,1 | 67,5 | 27,8 |
| | 100.000-1.000.000 € | 10,0 | 23,3 | 6,6 | 18,1 | 6,7 |
| | 100.000 eurotik behera | 24,0 | 55,8 | 2,2 | 14,4 | 2,2 |
| Guztira | | 43,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 16,4 |
| 2019 | 1.000.000 € baino gehiago | 10,0 | 30,3 | 91,3 | 78,0 | 26,6 |
| | 100.000-1.000.000 € | 18,0 | 54,5 | 8,2 | 19,4 | 3,7 |
| | 100.000 eurotik behera | 5,0 | 15,2 | 0,5 | 2,6 | 1,8 |
| Guztira | | 33,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 10,3 |

31. irudia. Moda-enpresak, urteko lanaldi osoko langile baliokideen arabera 2017-2019


| Urtea | | Maizt. | % |
|---------|---|--------|-------|
| 2017 | Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago | 31,0 | 72,1 |
| | Enpresa txikia: 10-49 enplegu | 12,0 | 28,9 |
| Guztira | | 43,0 | 100,0 |
| 2019 | Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago | 22,0 | 66,7 |
| | Enpresa txikia: 10-49 enplegu | 10,0 | 30,3 |
| | Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago | 1,0 | 3,0 |
| Guztira | | 33,0 | 100,0 |

4.2.5. Publizitatea

Sormen-industrietan agente gehien dituen sektorea publizitatearena da, 123 enpresa baitaude hiru lurraldeetan banatuta.


Jarduerari dagokionez, ñabardurak ikusten dira. Ildo horretan, kanpaina propioek jarrera desberdinak dituzte enpresek egindako zerbitzuekin alderatuta. Kanpaina propioek garrantzi handiagoa dute Bizkaian (% 52,3), baina enpresa bakoitzak egindako kanpainen kopurua askoz handiagoa da Araban; eta Gipuzkoan, neurri handi batean, batezbestekoa baino txikiagoa da kopuru hori. Zerbitzuek oso emaitza desberdinak dituzte; izan ere, gehienak Gipuzkoan egiten dira (% 65,8), eta Araba dago EAEko batezbestekoaren azpitik, enpresak emandako zerbitzuei dagokienez.

32. irudia. Publizitate-enpresak, lurralde historikoaren arabera 2017-2019




33. irudia. Kanpaina propioak, lurralde historikoaren arabera

2017-2019



34. irudia. Zerbitzuak, lurralde historikoaren arabera 2017-2019



Enpresen profiei begiratzuz gero, ikusten da enpresen % 60,0k 500.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztela, baina milioi bat euro baino gehiagoko enpresek biltzen dituztela diru-sarreraren % 70,0 eta enpleguaren % 60,0. Ildo horretan, nabarmentzekoa da tarte horretako langileen batezbestekoa, sektorearen batezbestekoaren oso gainetik baitago. Milioi bat euro baino gehiagoko diru-sarrerak dituzten enpresek 30,8 langile dituzte batez beste, eta sektoreko guztizko batezbestekoa enpresako 10,5 langile da.

35. irudia. Publizitate-enpresak, diru-sarreraren arabera 2017-2019

| Urtea | | Agenteak | | Diru-sarrerak | Urteko lanaldi osoko langile baliokideak | |
|---------|---------------------------|----------|-------|---------------|--|---------------|
| | | Maizt. | % | % | % | Batezbestekoa |
| 2017 | 1.000.000 € baino gehiago | 28,0 | 18,9 | 74,2 | 58,8 | 31,4 |
| | 500.001-1.000.000 € | 28,0 | 18,9 | 12,8 | 17,6 | 9,5 |
| | 100.000-500.000 € | 71,0 | 48,0 | 12,2 | 20,7 | 4,4 |
| | 100.000 eurotik behera | 21,0 | 14,2 | 0,8 | 3,2 | 2,3 |
| Guztira | | 148,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 10,2 |
| 2019 | 1.000.000 € baino gehiago | 27,0 | 22,0 | 78,8 | 64,1 | 30,8 |
| | 500.001-1.000.000 € | 15,0 | 12,2 | 7,5 | 9,9 | 8,5 |
| | 100.000-500.000 € | 62,0 | 50,4 | 12,8 | 22,2 | 4,6 |
| | 100.000 eurotik behera | 19,0 | 15,4 | 0,9 | 3,8 | 2,6 |
| Guztira | | 123,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 10,5 |

Publizitatearen sektorea enpresaren tamaina aintzat hartuta aztertuz gero, ikusten da mikroenpresak direla nagusi, 10 langile baino gutxiago dituztenak (% 78,0).

36. irudia. Publizitate-entresak, urteko lanaldi osoko langile baliokideen arabera 2017-2019


| Urtea | | Maizt. | % |
|---------|---|--------|-------|
| 2017 | Mikroentresak: 10 enplegu baino gutxiago | 112,0 | 75,7 |
| | Entresa txikia: 10-49 enplegu | 36,0 | 24,4 |
| Guztira | | 148,0 | 100,0 |
| 2019 | Mikroentresak: 10 enplegu baino gutxiago | 96,0 | 78,0 |
| | Entresa txikia: 10-49 enplegu | 25,0 | 20,3 |
| | Entresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago | 2,0 | 1,6 |
| Guztira | | 123,0 | 100,0 |

4.2.6. Bideo-jokoak


19 agentek osatzen dute bideo-jokoaren sektorea. Horietatik % 73,7 Bizkaian daude, % 21,1 Gipuzkoan eta % 5,3 Araban. Araban eta Gipuzkoan, 100.000 biztanleko ratioak batezbestekoaren azpitik daude (0,5 eta 0,7, hurrenez hurren), eta Bizkaian, berriz, gainetik (1,7).

Sektorearen jarduera-bolumenaren banaketa eta lurralde-banaketa zertxobait desberdinak dira. Gipuzkoan biltzen da sektorearen jardueraren % 44,6, eta enpresa bakoitzak egindako proiektuen batezbestekoa EAEko batezbestekoaren gainetik dago. Bizkaian, agenteen bolumenaren kasuan bezala, jardueraren ehuneko handiagoa dago (% 53,6), baina agenteko proiektuen ratioa EAEko batezbestekoa baino txikiagoa da.

37. irudia. Bideo-jokoaren enpresak, lurralde historikoaren arabera
2017-2019



38. irudia. Bideo-jokoen enpresen jarduera, lurralde historikoaren arabera 2017-2019



Bideo-jokoen agenteen % 57,9k 500.000 eurotik beherako diru-sarrerak izaten dituzte; hala ere, diru-sarreraren % 87,1 500.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten enpresetan biltzen da (agenteen % 42,1). Agente horiek enpleguaren ehuneko handiena ere badute (% 77,4); enpresa bakoitzak batez beste 25,9 langile ditu, sektorearen batezbestekoa baino askoz gehiago (14,1).

39. irudia. Bideo-jokoan enpresak, diru-sarreraren arabera 2017

| Urtea | | Agenteak | | Diru-sarrerak | Urteko lanaldi osoko langile baliokideak | |
|---------|-------------------------|----------|-------|---------------|--|---------------|
| | | Maizt. | % | % | % | Batezbestekoa |
| 2017 | 500.000 € baino gehiago | 7,0 | 28,0 | 75,0 | 57,6 | 20,8 |
| | 100.000-500.000 € | 10,0 | 40,0 | 22,6 | 33,7 | 8,5 |
| | 100.000 eurotik behera | 8,0 | 32,0 | 2,3 | 8,7 | 2,7 |
| Guztira | | 25,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 10,1 |
| 2019 | 500.000 € baino gehiago | 8,0 | 42,1 | 87,1 | 77,4 | 25,9 |
| | 100.000-500.000 € | 5,0 | 26,3 | 11,0 | 17,2 | 9,2 |
| | 100.000 eurotik behera | 6,0 | 31,6 | 1,9 | 5,5 | 2,4 |
| Guztira | | 19,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 14,1 |

Enpresek enpleguaren arabera duten tamainari dagokionez, banaketa nahiko parekoa da mikroenpresen (% 47,4) eta enpresa txikien (% 52,6) artean.

40. irudia. Bideo-jokoen enpresak, urteko lanaldi osoko langile baliokideen arabera 2017

| Urtea | | Maizt. | % |
|---------|---|--------|-------|
| 2017 | Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago | 16,0 | 64,0 |
| | Enpresa txikia: 10-49 enplegu | 9,0 | 36,0 |
| | Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago | - | - |
| Guztira | | 25,0 | 100,0 |
| 2019 | Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago | 9,0 | 47,4 |
| | Enpresa txikia: 10-49 enplegu | 10,0 | 52,6 |
| | Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago | - | - |
| Guztira | | 19,0 | 100,0 |

5.


Nazioartekotzea

Kapitulu honetan, sormen-industrien nazioartekotzeko gaitasuna aztertzen da. Datuek diseinuaren, modaren eta publizitatearen sektoreen nazioartekotze-joerak erakusten dituzte. Hiru kasuetan, merkatu nagusia Estatuko gainerako lurraldea da (fakturazioaren % 30-50 inguru).

Diseinuaren sektoreak du garrantzi handiena kanpo-merkatuen fakturazioan. Sektore horren fakturazio osoaren % 10,9 Europatik kanpoko herrialdeetan dago, eta % 20,4, berriz, Europako merkatuetan. EAEn duen fakturazioa fakturazio osoaren % 38 da.


Modaren kasuan, Europako merkatuen eta munduko gainerako merkatuen ehunekoa txikiagoa da (% 25,0 inguru), eta publizitatearen sektorean, merkatu nagusia barnekoa da (fakturazioaren % 55,6 EAEko merkatukoa da).

41. irudia. Fakturazioa, publizitate-enpresen merkatuaren arabera 2017-2019



Emakumezkoek, sektorearen arabera, ez dute presentzia bera sormen-industrietako enpleguan. Modaren, hizkuntzaren industrien eta publizitatearen sektoreek dute % 50etik gorako presentzia. Moda eta hizkuntzaren industriak nabarmentzen dira; sektore horietan, 10 langiletik 7 eta 6 inguru emakumezkoak dira, hurrenez hurren. Gainerako sektoreetan, emakumezkoen presentzia % 50etik beherakoa da, eta bideo-jokoaren sektorean, are txikiagoa: 10 enplegutik 3 baino gutxiago betetzen dituzte emakumezkoek.

42. irudia. Emakumezko langileak, sormen-industrietako sektoreen arabera Ehunekoak · 2017-2019



Emakumezko langileei buruzko datuak sektoreka aztertzen badira betetzen duten zeregin profesionalaren arabera, kudeaketa- eta administrazio-lanpostuak nabarmentzen dira (10 langiletik 6 eta 8 artean emakumezkoak dira sektore guztietan). Hala ere, zuzendaritza-postuetan, sektore gehienetan gizonezkoak dira nagusi, eta arkitekturaren sektorea

nabarmentzen da; izan ere, 10 langiletik 2 emakumezko baino ez ditu betetzen zuzendaritza-karguak. Modaren eta hizkuntzaren industrien kasuan, emakumezko gehiago dago kargu horietan (% 50 baino gehiago emakumezkoek betetzen dituzte). Lanpostu tekniko eta sortzaileetan, berriz, ia sektore guztietan lanpostuen erdia baino gehiago gizonezkoek betetzen dituzte, modan eta hizkuntzaren industrietan izan ezik (% 77,0 eta % 63,5 emakumezkoak dira, hurrenez hurren).

Ikuspegi orokor batetik, emakumezko gutxien dituen sektorea bideo-jokoena da.


43. irudia. Emakumezko langileak, sormen-industrietako sektoreen eta zeregin profesionalaren arabera

Ehunekoak · 2017-2019

| Urtea | | Zuzendaria | Teknikaria/ Sortzailea | Ekoi- zpena | Ku- deaketa/ Admin. | Beste batzuk | Guz- tira |
|-------|-------------------------|------------|---------------------------|----------------|---------------------------|-----------------|--------------|
| 2017 | Arkitektura | 15,0 | 41,0 | | 74,9 | 25,0 | 40,0 |
| | Diseinua | 38,8 | 44,2 | 42,7 | 69,1 | 39,2 | 44,8 |
| | Hizkuntzaren industriak | 58,7 | 69,0 | | 69,0 | 55,5 | 67,5 |
| | Moda | 65,8 | 77,8 | 75,8 | 68,8 | 77,0 | 72,7 |
| | Publizitatea | 51,3 | 48,9 | 60,9 | 67,2 | 45,3 | 56,8 |
| | Bideo-jokoak | 27,8 | 17,8 | | 68,3 | 28,2 | 26,1 |
| 2019 | Arkitektura | 20,4 | 39,3 | | 74,0 | 15,2 | 39,2 |
| | Diseinua | 40,7 | 42,8 | 22,1 | 87,2 | 60,7 | 48,1 |
| | Hizkuntzaren industriak | 52,1 | 63,5 | | 69,2 | 65,8 | 62,7 |
| | Moda | 54,1 | 77,0 | 80,9 | 76,2 | 51,1 | 75,1 |
| | Publizitatea | 32,7 | 49,9 | 64,9 | 79,8 | 40,8 | 56,7 |
| | Bideo-jokoak | 22,2 | 23,6 | | 58,4 | 42,3 | 27,4 |

Azkenik, sormen-industrietako langile guztiak (2.041,5 enplegu 2019an) zeregin profesionalaren arabera nola banatzen diren aztertuz gero, profil teknikoek eta sormen-profilek enplegu guztien ia erdia osatzen dute, eta, ondoren, kudeaketarekin/administrazioarekin (453 enplegu), ekoizpenarekin (432,2), zuzendaritza-profilekin (185,6) eta zehaztu gabeko beste batzuekin (51,7) lotutakoek.

44. irudia. Emakumezko langileen banaketa, zeregin profesionalaren arabera Absolutuak · 2017-2019





**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura